



ONDORIOA ETA PROPOSAMENA

LEHENA.- Kontuan harturik 2024ko ekainaren 14an Mutrikuko Udalaren web-gunean, Udako kanpainan foodtruck edo gastrofurgoak Mutrikuko Saturrarán hondartzan postuak esleitzeko oinarriak publikatu zirela.

BIGARRANA.- Kontuan harturik 2024ko uztailaren 24tik 26ra dokumentazioa hautagai ezberdinek Mutrikuko Udalean aurkeztutako dokumentazioa.

HIRUGARRENA.- Kontuan harturik aurkeztutako eskabideen balioespena egiteko oinarrian adierazitako balioespen-irizpideen aintzat hartu direla, Bigarren tipologiako gastrofurgoaren puntuaketa ondokoa da altuenetik txikienerako hurrenkeran:

1.	BASQUE TRUCK SL	58
2.	Sara Clemente Piris	35
3.	Sidi Mohamed Azaoui	35
4.	Lucinda Lucia Machado Trinchete	24
5.	Soukaina Quartet	21
6.	Jose Bernardo De Los Santos	12
7.	Driss El Boukili Moumen	12
8.	Vanessa Trinchete Gaspar	12
9.	Zohra Elazar	7
10.	Youssef Moumen	7

LAUGARRENA.- Honenbestez, Mutrikuko Udalak BASQUETRUCK SL enpresaren esleipena proposatzen du.

BOSTGARRENA .- Honako kokapena eta tasa dagozkio hautatutako gastrofurgoari:

- Baimena 2024ko uztailaren 1etik irailaren 15era arte izango da (77 egun).
- Gutxienez 60 egunetan eskaini beharko da zerbitzua.
- Kokapena Saturrarango aparkalekuaren eta kantina eraikin zaharraren artean kokatutako eta udalak espresuki prestatutako gunean izango da.
- Zerbitzua emateko gutxieneko ordutegia 11:00etatik 22:00etara izango da. Dena den, zerbitzua 10:00etatik 24:00 emateko aukera aurreikusten da.
- Tasak:

4,73 € x (2,60 m zabal x 5 m luze) x 77 egun: 4.734,73 €



Mutrikuko Udala

- Baimena hurrengo dokumentazioa aurkezteari baldintzatuta egongo da:
 1. Titularraren argazki bat, nortasun agirikoaren tamainakoa.
 2. Tasa ordaindu izanaren frogagiria eta fidantza.
 3. Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren alta, edo Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren barruan dagokion epigrafean alta eta baje egiaztatzea
 4. Saltzaileek elikadura-higienearen arloan jasotako prestakuntza egiaztatzen duen agiria.
 5. Salmenta jardueraren ondorioz kalte-galerarik sortuko balitz ere, horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria eta poliza bera.

SEIGARRENA.- Baimena, oinarrietan zehaztutako baldintza guztiei loturik egongo da, besteak beste:

- Ibilgailuetatik egingo da salmenta, betiere Udalaren aurretiazko baimena beharko delarik.
- Mutrikuko Udaleko Hirigintza Zerbitzuak adierazitako lekuetan ipiniko dira ibilgailuak.
- Salgai jarritako produktuei aplikatu beharreko higie eta osasun araudietan finkatutako baldintzak bete beharko dituzte ibilgailuek.
- Ibilgailuaren ezaugarriak ingurura egokitu beharko dira, estetikari eta funtzionaltasunari dagokienez; gainera, indarrean dauden araua bete beharko dituzte, higiearen eta instalazio elektrikoaren alorretan: makineria, instalazio elektrikoa, etab.
- Mutrikuko Udalak ez du instalaziorik onartuko esleipenaren unean adierazitako neurriak zehatzak ez badira.
- Ezin izango da eskatutakoaz beste ibilgailurik instalatu, ez eta adierazitako jardueraz besterik burutu. Debehatuta dago aurretiaz baimendu gabeko ezein elementu instalatzea.



Mutrikuko Udala

- Ezingo da deus zoruari lotuta atxiki, eta behar bezala babestu beharko da hura. Beraz, zoladuraren gainean ez da inolako ainguraketarik erabiliko.
- Ageriko lekuan jarri beharko dira udal baimena eta prezioen zerrendak, galdetu beharrik gabe irakurtzeko moduan. Halaber, eta betiere ageriko lekuan, adierazi beharko dute kontsumitzaileek erreklamazioak non aurkeztu ahal dituzten. Edonola ere, helbide hori fakturan edo ordainagirian adierazi beharko da.
- Megafonia, musika erreproduzitzeko soilik erabili ahal izango da, eta inola ere, ezin izango da erabili publizitate-helburuetarako. Hiru postuen artean kudeatu beharko dute megafonia-instalazioa. Megafonia ezin izango da erabili publizitate-helburuetarako.
- Mutrikuko Udalak 60 m²-ko zurezko plataforma bat jarriko du gastrofurgoek terraza gisa erabili dezaten. Guztira 12 mahai eta 48 aulki jarri ahal izango dira. Mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak, etab. gastrofurgoek eraman beharko dituzte. Gainera, erabilera komunitariokoa izango da.
- Gutxienengo zerbitzuak Mutrikuko Udalak jarriko ditu, besteak beste, argia eta ura. Hala ere, hondakin-urak husteko, furgoneta bakoitzak bere andela izan beharko du. Erabat debekatuta dago hondakin-urak, Saturrarango eremu osoan eta/edo Mijoa errekan isurtzea. Energia elektrikoa edo beste edozein motatakoa hornidura kableak babestuta egon beharko dira.

Esleipendunak bete beharreko baldintzei dagokionez:

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe egokietan alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea.
- Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea. Baldintza hau galdagarria izango da bereren kontu pertsonal langilearentzat. Langileen datuak berariaz adierazi beharko dira salmenta ibiltarirako lizentzia eskatzen denean. Nolanahi ere, ezingo dira bi titularkide baino gehiago izan



Mutrikuko Udala

lizentzia bakoitzeko, eta saltokiak esleitzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak oro bete beharko dituzte. 3. Udal-baimena edukitzea.

- Epeetan, ezartzen dituzten tasa edo kanonak ordaintzea.
- Hirugarren herrietako mailegatzailleek egiaztatu behar izango dute bizileku-baimenak eta lana kontuetan indarreko legerian ezarritako beharrak betetzea.
- Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Ofizioz egiaztatuko du Udalak hori horrela den, jasotako eskabideak baloratzerakoan. Baztertu egingo da baloratzeko unean eskakizun hori betetzen ez duen eskabide oro.
- Ekonomia jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea eta ordainduta egotea.
- Higiene eta osasun edo beste izaera bateko arautze espezifikoek ezarritako baldintzak betetzea. 9. Baldintza horiek betez gero ematen diren baimenak pertsonalak eta besterenezinak izango dira; debekatuta izango da, beraz, beste bati ematea.
- Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debekatuta dago haiek eskualdatzea.

ZAZPIGARRENA.- Oinarrietan ezartzen den bezala Kaleko Salmenta arautzen duen Udal Ordenantzaren III. kapituluko 32. artikuluan aurreikusten den hutsegite eta zigor erregimena aplikatuko zaio.

Mutrikun, 2024ko ekainaren 26an
IDAZKARITZAKO TEKNIKARIA

Ane Arreitunandia Elordi